

# GABONAK

**\* Noria handi bat Txurruka moilan eta Getxo zeharkatuko duen Txu-Txu tren bat, Gabonetako nobedade nagusiak**

**\* Gabonetako argiak piztuko dira ostiral honetan, hilak 28, 18:30ean, Telletxen**

**\* “Oparitu Getxo-Regala Getxo”, aurtengo kanpaina komertzialaren leloa**



Adimen Artifizialak egindako simulazioa

# GABONETAKO JARDUEREN AGENDA

EGUNA	JARDUERA	TOKIA	ORDUTEGIA/PREZIOA
28 Azaroa	Gabonetako argiak piztuko dira	Algortako Geltokiko plaza	18:30ean
28 - 6 Azaroa Urtarrila	-Noria erraldoia -Haurrentzako tren txikia	Txurruka moila	11:30-14:30 eta 17:00-21:00 (abenduak 25 eta urtarrilak 1, itxita) Bidaia: 5euro. Deskontuak izango dituzten egunak iragarriko dira
30 Azaroa	Kalejira Itxartu Dantza Taldearen Euskaren Nazioarteko Eguna dela eta	Algorta	12:00etan
2 Abendua	Kontzertua: Musika Eskolako flauta taldea	Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza	17:45ean
3 Abendua	Trikikantugosaria eta Trikimerienda Joseba Urrutiarekin	TikiToki zentroa	09:00etan eta 17:30ean
7 Abendua	Berbalagunekin Durangoko Azokara Antolatzailea: Egizu	Algorta	09:45ean
13 Abendua	Kontzertu solidarioa: Gospel Bilbao Antolatzailea: Bidesari	Areetako Andrés Isasi Musika Eskola	19:30ean – 10 euro
14 Abendua	ALBE Gala + “Balendin Enbeita” sariak: Sustrai Colina eta Ane Labaka + ALBEko bertsolariak Antolatzailea: ALBE	Igeretxe Jatetxea	12:00etan Gonbidapenarekin
16 Abendua	Neguko kontzertua “Andrés Isasi” Musika Eskolako ikasleak	Areetako Andrés Isasi entzunaretoa	18:00etan eta 19:30ean
18 Abendua	Sama Siku fanfarria	Algortako merkatalgunea	18:00etan
	Neguko kontzertua “Andrés Isasi” Musika Eskolako ikasleak	Muxikebarri	18:00etan eta 19:30ean
	Gabonetako kontzertua Itxartu abesbatza eta Lagun Artea abesbatza taldeekin	Triniarioen elizan	20:15ean
19 Abendua	Batukada Katxarrada	Algortako merkatalgunea	12:00etan
19 - 6 Abendua Urtarrila	Getxolandia Gabonetako Haur Parkea	Areetako Geltokiko plaza	11:00-14:30 eta 17:00-21:00 (abenduak 25 eta urtarrilak 1, itxita) Bidaia: 2 euro 5 bidaiako bonua, atrakzio bererako: 7,50 euro
	Txu-Txu trena udalerrian	Geltokiak: Algortako Etorbidea, 59 (Batzoki aurrean), Ama Mesedeetako eliza eta Getxolandia	11:30-14:30 eta 17:00-21:00 (abenduak 25 eta urtarrilak 1, itxita) Doan
20 Abendua	Gabonetako apaingarrien tailerra, familiei zuzendua Antolatzailea: Egizu-Sendi	Aldai Patronatoa	10:00etan eta 11:30ean
	24 orduz igerian euskararen alde <a href="http://SwimCampGetxo.com">SwimCampGetxo.com</a>	Fadura	12:00etatik aurrera
	Oilarraren estropada Antolatzailea: R.C.M.A.-R.S.C.	Itsasontziak Bizkaia Zubiaren azpitik igaroko dira	12:00etan
	Gabonetako kontzertua Biotz Alai	Muxikebarri	19:00etan – Sarrerak agortuta
	Olentzero Neguri-Gobela Antolatzaileak: Txatxalin Gobelako Guraso Elkartea eta Neguriko Gobela Taldea -Kalejira Olentzero eta Mari Domingi -Olentzerori eta Mari Domingiri harrera	-Garbigune-Gernika parkea -Gernika parkea	17:30ean 19:00etan
	Gabonetako V. órgano zikloa Alberto Mielgo, saxoa eta Pedro Guallar, organoa	Bariko San Nikolas parrokian	20:00etan
21 Abendua	Dantza “El Quijote”, Arte Ederra Ballet Gaztearekin	Muxikebarri	18:00etan – 5 euro
	Itziar López de Uralde Memoriala <a href="http://www.getxoatletismo.eus">www.getxoatletismo.eus</a>	Irteera eta helmuga: Fadura	10:30ean: haurrak eta familiak 11:00etan: gainontzeko guztiak
22 Abendua	Niala Magoa	Andra Marikomerkatalgunea	18:00etan
22 - 23 26 29 - 30 Abendua 6 Urtarrila	Gabonetako haur tailerrak (3-12 urte): Gabonetako iratxoak, kandelak, aurpegia pintatzea, zapiak, trufak, imitaziozko bitxiak, Gabonetako apaingarriak, hamma beads, henna, musika-tresnak, tinta magikoa, txapak, orrazkerak, xaboa...	Areetako Geltokiko plaza (eguraldi txarra izanez gero, Romo Kultur Etxeko erakusketa aretoan)	12:30-14:00 17:00-20:00
22 - 23 24 - 26 Abendua	Gabonetako Zirku Kanpusa Zirkun Zirkus Eskola	Zirkun Zirkus Eskola (Euskal Herria, 20)	09:00 – 14:00 taldeak 3-5 / 6-10 urte 80 euro (60 euro bi talde hautatzen badira) elebitan
23 Abendua	Algortako Olentzeroa Antolatzaileak: Horra horra Algortako Olentzero Batzordea -Haur bertsolariak -“Taberna Ibiltaria”	San Nikolas plaza	19:00etan 20:00etan

# GABONETAKO JARDUEREN AGENDA

EGUNA	JARDUERA	TOKIA	ORDUTEGIA/PREZIOA
23 Abendua	<b>Areetako Olentzero</b> Antolatzailea: Berantzagi Dantza Taldea -Haur antzerkia	Areetako Eskoletako plazan	18:30ean
	<b>Romoko Olentzero</b> Antolatzaileak: Zasi Eskola, Zitzu Bizian eta Romoko Jai Batzordea. -Haurtzako tailerra. Olentzero eta Mari Domingiren eskutitz bilketa	San Jose elizako arkupeak Santa Eugenia plaza	17:30ean
	<b>Andra Mariko Olentzero</b> Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea -Jolasak, eskulanak, musika... Animazioa trikitilari eta txistularien eskutik -Burduntzi	Malakate	17:00etan
24 Abendua	<b>Algortako Olentzero</b> Antolatzailea: Horra horra Algortako Olentzero Batzordea -Kalejira Musikalia Andrés Isasi Musika Bandarekin -Kalejira: dantzariak, txistulariak, trikia... -Olentzero eta Mari Domingiri agurra: txalaparta, bertsolariak, dantzariak, kon-daira eta Olentzero erretzea	-Algorta -Benancio bidegurutzetik -San Nikolas plaza	11:00etan 17:00etan 19:30ean
	<b>Areetako Olentzero</b> Antolatzailea: Berantzagi Dantza Taldea -Kalejira. Olentzero eta Mari Domingiri harrera Bizkaia Zubian -Irudiak eta erakusketak, erromeria, pintura, bertsolariak, dantzak... -Kalejira txistulariekin, trikitilarekin eta Berantzagi taldearen emanaldia -Olentzerori agurra	-Hasiera: Eskoletako plaza -Eskoletako plaza -Eskoletako plaza -Eskoletako plaza	10:30ean 11:00etatik aurrera 18:30ean 20:00etan
	<b>Romoko Olentzero</b> Antolatzaileak: Zasi Eskola, Zitzu Bizian eta Romoko Jai Batzordea -Olentzero eta Mari Domingiren kalejira: dantzak, gabon kantak eta gozokiak -Txokolatada eta Olentzeroren erreketak	-Hasiera: Santa Eugenia plaza -Santa Eugenia plaza	17:30ean 18:30ean
	<b>Andra Mariko Olentzero</b> Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea -Kalejira: fanfarria, txistulariak, gaztaina erreak... -Olentzerori harrera gabon kantekin, dantzeekin... eta ondoren erre	-Hasiera: Andra Mariko kiroldedia -Malakate	17:00etan 19:15ean
	<b>Gabonetako zeharkaldia igerian</b> <a href="http://www.getxoiv.com">www.getxoiv.com</a>	Portu Zaharra-Ereaga hondartza	16:30ean
26 Abendua	<b>Trikitixa</b>	Romoko merkatalgunea	18:00etan
	<b>Zirko ikuskuzuna</b> "Piensa en Wilbur", Wilburrekin	Muxikebarri	20:00etan - 9 euro
	<b>Gabonetako V. órgano zikloa</b> Aitor Olea, organoa	Bariko San Nikolas parrokian	20:00etan
27 Abendua	<b>Antzerkia</b> "Asesinato en el Orient Express", Juanjo Arterorekin	Muxikebarri	20:00etan - 18 euro
28 Abendua	<b>Haur ikuskizuna</b> "Blancanieves, el musical"	Muxikebarri	18:00etan - 8 euro
	<b>Andra Mariko Krosa</b> <a href="http://www.itxas-argia.com">www.itxas-argia.com</a>	Irteera eta helmuga: Andra Mariko kiroldedia	10:30ean: haurrak 11:00etan: gainontzekoak
	<b>Kanpaikada txikia</b> Antolatzailea: Romo Bizirik	Santa Eugenia plaza	12:30-14:30
29-30 31 Abendua 2 Urtarrila	<b>Gabonetako Zirku Kanpusa</b> Zirkun Zirkus Eskola	Zirkun Zirkus Eskola (Euskal Herria, 20)	09:00 - 14:00 taldeak 3-5 / 6-10 urte 80 euro (60 euro bi talde hautatzen badira) elebitan
30 Abendua	<b>Gabonetako V. órgano zikloa</b> Xabier Andrada, bibolina, eta Andoni Andrada, organoa	Bariko San Nikolas parrokian	20:00etan
	<b>Bertso poteoa</b> Amets Arzallus eta Unai Mendiburu bertsolariekin Antolatzailea: Abian-ALBE	Algorta	20:00etan
31 Abendua	<b>San Silvestre Herri Lasteketa</b> <a href="mailto:info@trirunners.com">info@trirunners.com</a>	Bizkaia Zubia	10:30ean
2 Urtarrila	<b>Gospel kontzertua</b> Samaria Gospel Singers	Muxikebarri	20:00etan - 12 euro
3 Urtarrila	<b>Opera</b> "La flauta mágica", Camerata Lírica konpainiarekin	Muxikebarri	19:00etan - 18 euro
4 Urtarrila	<b>Zirko ikuskizuna haurtzat</b> "Akri", Manel Rosésekin	Muxikebarri	18:00etan - 8 euro Gaztekeraz >6 urte
5 Urtarrila	<b>Erregeen Kabalgata</b>	Andra Mari-Algorta Areeta-Romo	Andra Mari-Algorta: 17:30ean Areeta-Romo: 19:30ean (Ibilbidearen berri emango da) Amaieran, Erregeen harrera Algorta eta Romo Kultur Etxean

**Gabonetako kanpaina komertzialaren leloa "Oparitu Getxo-Regala Getxo" izango da**

## **Noria handi bat Txurruka moilan eta Getxon zehar ibiliko den Txu-Txu trenan, Gabonetako berritasun nagusiak**

Gabonetan, Getxok erakargarri berriak izango ditu haur, gazte eta familientzat. Noria handi bat instalatu da, neurri horretako bakarra Bizkaian, Areetako Evaristo Txurruka moilan. Hasiera batean, azaroaren 28tik urtarrilaren 6ra egongo da martxan, eta Txu-Txu tren batek Getxo zeharkatuko du, hainbat geltokirekin, azaroaren 19tik urtarrilaren 6ra. Txurrukako moilan, halaber, haur-tren txiki bat egongo da, "in situ" ibilbide finkoarekin, eta gofre- eta crep-postu bat (ikusi 2. eta 3. orrialdeetako agenda).

Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, "Gabonak ilusio berrituaz eta familian eta lagunekin gozatzeko jarduera berriz beteta dotoz aurten. Kaleak alaitasunez betetzera gonbidatzen zaituztet, eta Getxok eskaintzen duen aisialdi, kultura, kirol eta musika eskaintza zabalean parte hartzera, saltokiei, ostalaritzari, elkarte eta klubei eta, jakina, Udalarri esker; guztiontzako proposamenak izanik, batez ere txikiarentzat".

**Gabonetako argiak piztea eta merkataritza-kanpaina**  
Aurtengo argiak ostiral honetan, azaroak 28, piztuko dira Algortako Geltokia plazan. 18:30etik aurrera, Biotz Alai Abesbatza eta Zirkozaurre (zirkuko arteak) elkartuko dira aipatutako plaza horretan, arratsaldea alaitzeko. Gainera, dagoeneko ezagunak diren GetxOpariek, Gabonetako pertsonaia magikoek, opariak

banatuko dituzte; 19:00etan, Gabonetako ohiko argiak piztuko dira, Amaia Aguirre alkateak, ordezkari politikoei, Getxoko merkataritza- eta ostalaritza-elkarteek eta aipatutako Jaime Hayde artista getxotarrak parte hartuta.

Gabonetako kanpaina komertzialaren leloa "Oparitu Getxo-Regala Getxo" izango da. Kanpaina horrek jardueraprograma zabala eskaintzen du, Udaleko hainbat arlo eta horrekin elkarlanean aritzen diren hainbat entitatek antolatuta. Helburua beste behin ere berbera: kaleak, merkataritza eta ostalaritza dinamizatzea, eta herritar guztiek goza dezaten laguntzea, batez ere haur eta gazteek. Horretarako, hainbat emanaldi eskainiko dira (batukada, fanfarria, magoak, trikiritria...) Algortako, Areetako, Romoko eta Andra Mariako merkataritza-guneetan.

Gabonetako kanpaina honetan, merkataritza-establezimenduek motxila batzuk banatuko dituzte, Jaime Hayde artista getxotarrak diseinutako Gabonetako ilustrazioa dutenak. 5.000 unitate izango dira, eta doan emango dira Gabonetako kanpainari atxikitako saltokietan. "Merkataritza eta ostalaritza babesteaz gain, kultura- eta sormen-industrieari lotutako tokiko talentuaren balioa nabarmentzen dugu. Horiek guztiak izango ditugu Gabonetako argien pizte ofizialean, ostiralean,



hilak 28, Algortako Geltokia plazan", Amaia Aguirre alkateak nabarmendu duenez.

Tokiko merkataritzaren Gabonetako kanpaina abenduaren 16an hasiko da komunikabideetan, eta, ondoren, tokiko merkataritza sustatzeko eta animatzeko kanpaina egingo da, aipatutako GetxOparien eskutik, eta sariak emango dizkiete Areetako, Romoko, Algortako eta Andra-Mariko lau ardatz komertzial nagusietako edozeinetan Gabonetako erosketak egiten dituztenei.

Era berean, kalean hainbat dinamizazio-ekintza izango

ditugu: abenduaren 18tik aurrera, "Sama Siku" fanfarriaren eta GetxOparien laguntzaz opariak banatuko dira Areetako merkataritza-gunean; abenduaren 19an, "Katxarra-da" batukada arituko da eta opariak Algortako merkataritza-gunean banatuko dira; 22an, "Niala magoa"ren magia-ikuskizuna eta opariak, Andra Mari merkataritza-gunean, eta, azkenik, 26an, trikiritria eta opariak Romoko merkataritza-gunean.

**GETXOENPRESA, ALGORTAKO DENDAK ETA ROMO BIZIRIK**

**GetxoEnpresa**ren XXXV. Erakusleihu Lehiaketa abian da, erakusleihu fisikoaren eta erakusleihu birtualaren modalitateetan. Sari ugari banatuko dira, eta abenduaren 10etik aurrera, webgunearen mapa interaktibo batek erakusleihu fisiko parte-hartzaileak erakutsiko ditu, horiek bisitatzeko ibilbide proposamen batekin. Berrikuntza gisa, GERTUapp aplikazioaren bidez bozketa herrikoia bat egingo da, publikoaren erakusleihu fisiko gogokoenari botoa emateko.

**Romo Bizirik** elkarteak Kanpai Txikiak emango ditu Santa Eugenia Plazan abenduaren 28an, igandea, 12:30etik 14:30era, Utopian antzerki konpainiarekin batera.

**Algortako Dendak** elkarteak "Arraspatu eta irabazi" kanpaina antolatu du, abenduaren 10etik 29ra. Gabonetako 3.500 opari zuzen emango dira. Saririk jasotzen ez duten txartelek 500 €-ko zozketan parte hartzeko QR bat izango dute, atxikitako saltokietan kontsumitzeko.

